

www.noaua.com

Noaua !!



Gipuzkoako Txapelketa!



Herri Arteko Pilota Txapelketa
final laurdenetara pasa dira

AZKONOBETA LAN FORESTALAK

sasi garbiketa, hesi lanak, landatzea,
inausketa, mugarriztatzea, mozketak,
eta mendiko edozein lan mota.

656 720 607
azkonobieta@hotmail.com



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA** zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.
- ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**
- BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak
- ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak
- ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Asegururik **EZ** duten familientzat Usurbilgo beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

943 36 46 00
www.lhusurbil.com

Erdi eta gol mallako zikloak A eta D Eredueak

Administratiboa	Elektrizitate-elektronika	Fabrikazio mekanikoa	Ura eta energia Produktzio zerbitzu eta manten.
			

Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA ekainaren 1etik 10era



Albisteak iruditan!!

Eta kalea antzoki bihurtu zen...

Giro ederrean ospatu zen larunbatean IV. Kale Antzerki Eguna. Txerriki Antzerki Taldeak eta Usurbilgo Udalak eginiko gonbitari ezin hobeto erantzun zioten herritarrek. Haur, gazte zein heldu, goizean zein arratsaldean burutu ziren hiruna antzezlanetara gerturatu ziren; jada urtean behin antzoki bihurtu diren frontoi eta Mikel Laboa plazara. Emanaldiek zer nolako harrera izan zuten jakitea ez zen lan zaila, herritarren aldetik jaso zituzten txaloetan eta irribarreetan nabari zitekeen. Denetariko formatu eta ikuskizunak nahastu ziren lau-garren edizio honetan ere. Ikusgarria izan zen, festa borobildu zuen Deabru



ARGAZKI GEHIAGO NOAUA.COM WEB ORRIAN, ARGAZKITEGIAN IPINI DITUGU.

Beltzak taldearen gaueko emanaldia. Eguneko hainbat irudi noaua.com web

orrialdeko "Argazkitegia" atalean kontsulta daitezke.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jenduarreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!





NEREA ZINKUNEGI

Paisaia lasaia

Irudi abstraktoa dirudi, zuri-beltzekoak, batez ere. Zein plano mota den esaten ez nuke asmatuko; izan zitekeen plano orokor handia, baina halakoetan giza irudiak ez du garrantzi handirik izaten, tamainagatik, indar handiagoa izaten du paisaiak. Baina, irudi honetan giza irudiak, txikiak izanagatik, paisaia osatzen dute, paisaia paregabea.

Norbaitek bidali zidan e-mailez, zorionez, irudia. Irudi zalea naiz, eta horrelakorik ez dut inoiz ikusi. 16 x 24zmtan, ehunka aurpegien artean nirea ezagutu dut, Plasena, Maitanerena, Ramonena, Mattinena, Eñautena, ikasleena, ikasle ohiena, Igonerena, Elirena, Jesusena, ikasle baten amarena, Joxemaina, Olatzena, Zaloarena, , Anajesusena, Nagorerena, Nerearena, Alaitzena, Aitziberrena...horren beste ezagun, arrazoi ezberdinak medio, aldi berean eta irudi berean ikusi orduko sailka ezinezko oroitzapenak datozkit burura. Ze gauza, eh !!!

Atzematen ez den arren, Zubietako plazan hartutako irudia da, ikuspuntu pikatuan, elizako teilatutik, seguru aski. Argazkia, hertz batetik besteraino, behetik hasi eta goraino, jendez beteta dago eta han izan ginen guztiak azaltzeko honen moduko irudi mordoa beharko litzateke.

Lantokitik atera eta begi parera begiratu dut, betiko moduan, zeruaren kolorea ikusi asmoz, eguraldiaren aurreikuspenak egiteko, badakizu, guztiok gara Pello Zabala.



Triangelu okre batek deitu dit arreta, pinudi berde ilunen artean eta zero urdinaren kontra. Lanean ari diren makinak argi dirdira etengabea da, eztandak ere hala omen. Harrapazank!!! txikitzen ari digute paisaia lasaia.

Asteburu honen ostean aldaketa omen dator paisaia politikoan.

Martxoan, Zubietan egindako flashmob hartan izan ginenoi muzin egin ziguten agintariak, ezikusiarrena, entzungor, lotsagabe. Paisaia politikoan aldaketa baldin badator etorri daitezela belarriak ondo garbituta, ganoraz. Eta zerbaitetarako baliogarri izango bada "pinopuenta" egin genezake Zubietan hurrengo batean, behin jarriz gero zergatik ez?

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Garaipenaren botoak

Oraín zortzi urte, izenburu horrekin idatzi zuen Mertxe Aizpuruak iritzi gutun bat orrialde hauetan bertan. Ehunka hautagai-zerrenda legez kanpo utzi zituzten lehen aldia izan zen orduan eta, ondorioz, UHLk lortutako 1.179 botoak baliogabetu egin zituzten. Zerrenda bozkatuena izaki ere, usurbildarren erabakia ez zen errespetatua izan.

Geroztik bide luze eta malkartsua egin dute ezkerreko abertzaleek. Duela lau

urte ere komeria franko izan ziren EAE-ANVren zerrendarekin, Usurbilen ontzat eman bazuten ere, Euskal Herriko herri askotan ez baizen horrela gertatu.

Legeak gora behera, "garaipenaren botoak" zirela zioen Mertxek, "urtez urte, gestio-lana eta ildo politikoaren uztarketaz fidagarritasuna lortu duen aukerarenak".

Igandean Bilduk erdietsitakoak ere horrelakoak direlakoan nago. Atzetik datorren soka luze baten segida dira.

Artilea ehunduz handitzen doan mataza eta Independentziaren eta sozialismoaren orratzak hartuta, Usurbilek eta Euskal Herriak behar duten berokia osatzen joango direnak. Zuenak ere garaipenaren botoak dira. Animo, beraz, alkate anderea eta animo ere Alaitz, Josu, Jone, Pepe, Enara eta Iñakiri.

Arantxa Manterola

Hautagai izateko eskubide gabetutako milaka euskal herritarretako bat.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: ekainak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 30.

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Errausketaren bidea baztertzea eskatu du Usurbilgo Itunak

Gipuzkoarren osasuna lehenetsi; ingurumena kalte dezakeen edozein tratamendu baztertu, tartean errausketa; 5.000 biztanle baino gehiagoko udallerriak materia organikoa gaika biltzera behartzen dituen 10/98 legea betearazi; Zubietan eraiki asmo duten errauste plantari Aldundiak hiru urteko moratoria ezartzea eskatu; proiektuaren 580 milioi euroko kostua duen finantzaketa bertan behera utzi; eta horrek udalei eragingo liokeen mendekotasun ekonomikoa salatzen duen mozioa aurkeztu du Usurbilgo Itunak hainbat udalengan, baita Usurbilgoan ere.

Gobernu taldearen eta Aralarren babesarekin aurrera atera zen aipatu testua, joan den maiatzaren 17an burutu zen ezohiko osoko bilkuran. Gobernu taldeak bat egin zuen Usurbilgo Itunak aurkezturiko testuarekin.

“Alternatibarik bada”

“Alternatibarik bada, osasuna eta ingurumena errausketarik gabe zain ditzakegu”, adierazi zuen alkateak. Tartean, mozioak jasotzen duen moduan, badira Gipuzkoan %80tik gorako bilketa selektiboa lortzen duten sistemak.

Unearren egokitasuna, zalantzan

Alkarbidek ez zuen ez bozketan ezta eztabaidan parte hartu nahi izan, bozeramaile Luis Mari Ormaetxearen esanetan, “ez da egokia mozio hau gaur eztabaidatzea” zioen esanez, udalbatza hauteskunde kanpainako foroan bihurtzea zela eta aurreko osoko bilkuran aurkez zitekeela gaineratuz. EAJ-PNVtik Iñaki Illarramendik planteamenduarekin alderdia ados ez zegoela adierazi arren, “Usurbilgo hitza errespetatzearen alde agertu zen. Aurka bozkatu zuen, Amaia Goyaran sozialistak bezala, ez zela unea esanez. Adierazpenon aurrean, alkateak mozioa hauteskundeei begirakoa zenik ukatu zuen, baieztatuz, gai honekin zerikusirik ez duten beste arrazoi batzuegatik ez dela aurkeztu lehenago. Hauteskundeak izan arren, udal kudeaketaren jarraipenaren testuinguruan ulertzen du mozioa aurkeztu izana.

Sekañako hiritartze obra kontratua, dekretuz zuzendua

Sekaña eremuko bigarren faseko hiritartze obraren kontratazioan akats zuzenketa bat txertatu du udalbatzak; lizitazio prezio berria, 1.168.171,29 euro (BEZ barne). Lizitaziorako irekitako epea ere zabaldu dute. Proposamenak aurkezteko epea 13



MAIATZAREN 17AN EGIN ZEN UDALBATZA PLENOA.

egun naturalez luzatuko da, ekainaren 13ra arte. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrialdako kontratatzailearen profilean argitaratzeko asmoa du Udalak.

Arau Subsidiarioak:

Txagañeta eremuko aldaketa, hasieraz onartua

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Txagañeta Eremuko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntuala hasieraz onartu zuen udalbatzak joan den maiatzaren 17an burutu zuen ezohiko osoko bilkuran. Erabakia jendaurrean hilabetez egongo da orain, alegazioak aurkezteko.

Zumarten, matrikulazioa zabalik

Ikasturtea amaitzeaz da. Baina Loporretan murgildu aurretik, datorren ikasturterako eman behar da izena. Datorren astean zabalduko da Zumarte Musika Eskolan matrikulazio epea. Ikasgai ugari daude aukeran. Eta 4 urte, gutxienerako adina.

Matrikulazio-egunak

Maiatzak 30- Ekainak 3 bitarte.

Gutxienerako adina: 4 urte.

Goizez (egunero, astelehena ezik): 11:00-13:00.

Arratsaldez (egunero): 16:30-19:30.

Ikasgaiak

Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarineta, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak.

Informazio gehiago

Eskolan bertan (Kale Nagusia, 45).
943 371 594 / www.zumarte.org



ZUMARTEKOAK, ESKAINITAKO KONTZERTU BATEAN.

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzoa estreinatzen



Aze agujetak! Larunbatean Ibai-Ondo elkarteak eskubaloi eta pilota partidak antolatu zituen, eta inaugurazio antzeko bat izan genuen. Lehenbizitako nesken eskubaloi norgehiagoka, bertan lehen ibilitako figura batzuk eta oraingoak elkartu ziren gure auzoko plaza berrian. Jendea ere gerturatu zen ikuskizun mundial hau ikustera. Ondoren mutilen txanda zen, ni ere bertan nintzela. Hemen garai bateko izar batzuk izan genituen: Manzano, Castro, Markos... a ze garaiak! Festa polita, halere epaileek gazteen alde egin zuten, nabarmen, eta horrek partida hautsi zuen, ja, ja, ja. Frontoi berria ere estreinatu zen, herriko pilotari gazteekin. Hiru eskupilota partida egin ziren, hirurak jendearen gustukoak. Nola ez, kirolarientzat nahiko jana izan genuen indarrak errekerperatzeko, Ibai-Ondokoak ederki ibili ziren lan horretan, eta ez zen inor, ez gose eta ez egarri gelditu, eta eskatzekotan, hurrengorako masajista bat ekartzea ez



litzaiguke gaizki etorriko. Orain badakizue, ea festetako txapelketaren bat antolatzen dugun, guzti hau aprobetxatzen hasteko. Ni errekerperatzera, 28 urte eskubaloian jokatu gabe eta gozatu nuen, baina orain, aiiiiiiiiiii!

KALEBERRI

IRATI PORTU

Asteburuan bertsoak



Oraingo honetan ere kronika idazteko garaia iritsi eta zertaz idatzi jakin ez, hau da marka! Ideiaren bat bururatuko zaidalakoan edo azkena ida-tzitako kronikak erreperasaten hasi naiz eta hara hor non aritu nintzen, “erregea eta bufoia” bertso-antzezlanari propaganda egiten. Kronika idatzi nuen garaian oraindik emanaldia izan gabea zen, gero izan nuen ikusteko aukera, eta egia esan behar badut paregabea izan zen.

Badirudi niri kronika idaztea tokatzen zaidan aldiro, hurrengo asteburuan bertso saioa izaten dela herrian. Datorren larunbatean, hilaren 28an, Gipuzkoako txapelketako lehenengo itzuliko bigarren faseko saioa izango da Sutegin. Goizean sei bertsolari gazte izango dira: Beñat Alberdi, Iban Urdangarin, Iñigo Gorostazu, Josu Oizartabal, Unai Gaztelumendi eta Zigor Iriondo. Arratsaldean beste sei izango dira: Asier Sasieta, Egoitz Eizagirre, Amaia Iturriotz, Agin Rezola, Jokin Uranga eta Oihana Iguaran. Beraz, Usurbilgo bertsozaleek badakizue. Aurreko kronikan nire ustetan asmatu nuen “erregea eta bufoia” gomendatzen. Ea oraingo honetan ere asma-tzen dudan!

KALEZAR

INMA BALDA

Maiatzaren azken igandea

Gure herrian denok daukagu maiatzaren azken igandea egun esanguratsu, gaztetxo batzuk bere Lehen Jaunartzea ospatzen baitute. Bere bizitzan ematen duten pauso handi bat ekarri nahi dut lerro hauetara. Gure begien aurrean emango dute eraldaketa, baina horretaz ez dakit noraino ohartzen garen helduok. Adin honetan, gaztetxook haurren mundua uzten ari dira eta helduonean sarbidea eskatzen hasiak ditugu. Inoiz baino gehiago guri begira jartzen dira eta jarrera, pentsamendu eta jokabideetan imitazioak izango dira ikasbide nagusiak. Fantasiatzko mundua utzi behar dute errealitatea ezagutu, onartu eta jabetzeko. Gizarteak ezartzen dituen arauen artean mugitzen ikasi beharko dute eta nahia pertsonala komunitatearen beharrekin uztartzen jakin beharko dute, zoriontsu bizi nahi badute. Eta guztion desioa da gure gaztetxoak zoriontsu izatea! Baina, helduok laguntzen al diegu gazte hauei bere bilakaera egiten? Zer nolako eredu gara? Zer nolako errealitatea ari gara eraikitzen gazte hauentzat? Gure herriko, lurraldeko larre goxo, ezagun eta ziur honetan moldatzen erakusten diegu ala mugarik gabeko eremu batera bota ditugu? Bai, beharbada, egun bat behar dugu egutegian umeei helduen munduan sartzen lagundu behar diegula gogoratzeko.



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Jaiak antolatzeko bilera



Dagoeneko udaberrian bagoaz aurrera eta konturatzeko udan sartuak izango gara. Kalera begiratu besterik ez dago eguraldia ere zenbat goxatu den ikusteko. Udarekin batera klaseak amaituko dira, oporraldiak eta zenbait herritako jaiak hasiko dira... Aginagako San Praixku jaiak, uda ostean izaten ditugu, baina uda konturatzeko pasatzen da eta hau dela eta, ostiralean, maiatzak 27, elkartuko gara bilerekin ekiteko, 21:00etan soziedadean. Hemendik, guztiok animatu nahi zaituztet bilera hauetara, ez izan beldurrik ezta lotsarik eta animatu!!! Izan ere, guztion artean errazagoa baita denon gustoko jaiak antolatzea. Bestalde, aurtengoan ere guraso elkarteko kideak udako txokoak antolatzeko asmotan dabilta. Oraindik ez dute izen ematea zabaldu baina laster irekitzekotan dira. Zabaldu bezain laster, Noaua!n izango duzue informazio horren berri. Momentuz, gaineratu dezaket, azken urteetan bezala anto-



latzeko asmotan dabiltzala, hau da, 4-12 urte arteko hurrei zuzendutako txokoak izango dira. Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:30etara izango dira eta astean behin egun osoko irteera bat egingo dute. Besterik gabe, hemen-txe agurtzen natzaizue, hurrengorarte!!!

ATXEGALDE

MA JESUS URBIETA

Irtenbidea non



Joan den maiatzaren 15ean Sagardo Eguna ospatu genuen. Herrian festa bikaina antolatu zuten. Eurria hasi zuen arren, ez zuen giroa goibeldu. Ohiturari jarraituz, majo pasa zuten bertara hurbildu ziren gazteek eta guztiek.

Maiatzak 22, hauteskunde eguna, zerbait behar da jendea mugitu eta ilusioz edo urduri giroan sartu eta aurrera jarraitzeko. Euren botoak ematera hurbildu ziren herritarrak.

Baina oraingoan gogor ekin diote gazteek, hiri handietako plaza askotan, asanblada bikainak egin dituzte, bertan bilduta pasa dituzte egunak eta gauak. Milaka herritar asko izan dira bertan, irtenbide bat aldarrikatuz gaur egun bizi duten egoera salatuz, hauteskundeen aurrean, adin guztietako jendea bildu da.

Politikariei eskatzeko azterketa bat, aurrean dagoen lan arazoari eta honek dakarren okerrari.

Maiatzaren 29an, igande honetan, gure Parrokian komunio eguna dugu. Haur talde bat pozik dago egun horren zain. Egun polita izango dute noski. Zorionak denoi!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Baloia gurpil-aulki gainean

Ez naiz kirolzalea. Are gutxiago kirola ikusizalea. Baina, Zubietatik kanpo nagoela, atentzioa eman dit bi talde eskubaloian aritzea gurpil-aulkiaren gainean. Zubietan palan gurpil-aulkian aritzen direnekin gogoratu naiz. Plazan lau taldeak ari ziren. Indar betean: kankatekoen hotsak beldurra ematekoak ziren. Eta edozer gauza besteari pasatzen uztea baino. Halako batean hankaz gora joanda gurpil-aulkia eta bertan zegoena ere, eta ez dute gutxi pisatzen aulki hauek, bereziak baitira honetan aritzeko. Jokoan ari zirenetako bakarra zen hankak erabilgarri zituena. Dirudienez rugbylari sonatua omen, eta beso zuztarrak halakoxea adierazten zuten. Propagandarako edo ekarri omen zuten laguna. Elkarrizketan adierazi du nekoso egiten zitzaioela gurdian mugitzea. Bigarren aldian ez da aritu, ezin zuen besteen abailan. Propagandarako ari ziren, ez dakit zein bankuk lagunduta, akaso olinpiadetarako, berdin dit: ez naiz kirolzalea, are gutxiago kirola ikusizalea. Hala ere zenbateko gogoia zegoen ikusita, harritu egin naiz. Zein zabalak ziren irribarrak. Libertitzeko ari ziren lehertu arte: jokoan eta jolasean aldi berean. Gelditu egin naiz, eta halakoetan kirolak merezi duela pentsatu dut.



Mertxe Aizpurua, Bildu koalizioa

"Guztiekin lan egiteko asmoa dugu"

Mertxe Aizpurua izango da Usurbilgo alkate berria, Bildu koalizioak gehien-oso eskuratu duelako. "Oso pozik gaude emaitza hauekin. Eta baita Euskal Herri osoan eman diren emaitzekin". Ez zen harrituta azaldu emaitza hauekin. Igande gauez telefonoz azaldu zigunez, "esperantza bagenuen. Eta bagenekien gerta zitekeela, zazpigarren zinegotzia ere eskuratzeko aukerak genituela".

Emaitzen berri izan bezain pronto, oso pozik agertu zen Mertxe Aizpurua, Usurbilgo alkate berria. Eta adierazi zigunez, "ilusio gehiagorekin lan egingo dugu, jendearen babes hori izanda, askoz hobeto egiten da dena. Kanpainan esan dugu demokrazia partehartzailea sustatuko dugula eta guztiekin lan egiteko asmoa dugu. Herriaren alde lan egiteko prest dauden guztientzat atek irekita izango ditugu".



MERTXE AIZPURUA ETA BILDUKO ZERRENDAKIDEAK, KANPAINAN ZEHAR EGINDAKO EKITALDI BATEAN.

Kazetaria lanbidez

Mertxe Aizpurua kazetaria da lanbidez. Egin egunkarian aritu zen denbora luzez. Egin eta Egin Irratia itxi zituztenean, Gara egunkaria jaio zen eta sortu zenetik 2004 urtera bitarte,

Garako zuzendaria izan zen.

Bertan ari da kazetari lanetan baina orain eginbehar berri bat izango du. Politikan aritzen den lehen aldia izango da hau. Usurbilek izango duen emakumezko lehen alkatea izango da.

Horrela osatuko da udalbatza berria

Bildu, 7 zinegotzi

Mertxe Aizpurua Arzallus
Alaitz Aizpurua Labaka
Josu Portu Alzaga
Juana Maria Urdampilleta Urdampilleta
Jose Maria Rivadeneyra Sicilia
Enara Arbizu Irurtia
Iñaki Ugarte Agirre

Aralar, 2 zinegotzi

Eustakio Arrojeria Eguzkiza
Jose Ramon Furundarena Salsamendi

Hamaikabat, 2 zinegotzi

Luis mari Ormaetxea Santsiñena
Josune Urquia Carrera

EAJ-PNV, zinegotzi bat

Andoni Atxega San Sebastian

PSE-EE, zinegotzi bat

Ricardo Crespo Rubio

Udalbatza berria ekainaren 11n larunbata osatuko da.*

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

Otar-Goxo
Elikagutia
Zubiaurrenea, n°2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Ojandegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Botoen gehiengo osoa eskuratu du Bilduk

Aralar: "Gure jarrera eraikitzailea eta baikorra izango da"

Eustakio Arrojeria Aralarreko hautagaia pozik azaldu zen NOAUA!ri telefonoz egindako balorazioan. "Gustura gaude emaitzekin. Gure balorazioa positiboa da. Duela lau urteko datuekin alderatuz, mantendu ez ezik, botoetan ere gora egin dugu. Erronka handia bazen ere, bigarren indarra izatea lortu dugu eta, zentzu horretan, gure emaitza oso ona da".

EUSTAKIO ARROJERIA

"Gustura gaude emaitzekin. Duela lau urteko datuekin alderatuz, mantendu ez ezik, botoetan ere gora egin dugu"

"Gehiengo absolutua berez ez da ona", esan zigun Arrojeriak igande gauz eskaini zigun balorazioan, "baina gu jarrera baikor eta irekiarekin arituko gara. Kritikoa ere, baina ekarpenak egiteko prest beti. Herriari begira gure jarrera eraikitzailea eta baikorra izango da".

Bukatzeko, Eustakio Arrojeriak eskerak eman nahi zizkien herritarrei "eta botoa eman digutenei. Lau urteotan egin dugun lanarengatik, oso kritikatuak izan gara bereziki alderdi batengatik baina emaitzak onak izan dira guretzat".

Hamaikabat: "Gogor jarraituko dugu aurrerantzean lanean"


Usurbilgo Hamaikabat alderdiak balorazio modukoa ipini zuen igande gauz, bere web orrian.

LUISMARI ORMAETXEA

"Herritarren partehartze zabalak zilegitasun osoa ematen die zinegotzi berriei"

Honela zioten idatzi horretan: "emaitza hauen arabera Hamaikabatek gogor jarraituko du aurrerantzean lanean bere herri-proiektua eta idearioa gizarteratzeko. Herritarren partehartze zabalak zilegitasun osoa ematen die zinegotzi berriei etorkizunean hartuko dituzten erabakiei".

Azkenik, eskerrak eman nahi zizkieten



herritarrei, "beren partehartzeagatik eta beste alderdiak zorianzuten ditugu atera dituzten emaitzengatik. Balorazio zabalago bat hurrengo egunetan emango dugu".

EAJ-PNV: "Herri abertzalea da hau"

Andoni Atxega izango da PNVk izango duen ordezkari bakarra. Emaitzei begira, "aurreko legegaldiko gauza bera egin dugu", adierazi zigun lehenik eta behin.

ANDONI ATXEGA

"Gehiengo osoa lortu dute eta zeregin gutxi izango dugu besteok. Beren borondatearen arabera izango da hori"

Bilduk izan dituen emaitzen aurrean, "espero genuen Bilduren olatua. Nondik aterako ziren boto horiek, hori ez, baina emaitza hauek espero genituen".

Emaitzen lehen balorazioarekin batera, "lehenbizi zoriondu egin nahi ditugu Bildukoak. Boto asko jaso dituzte, gehiengo osoa lortu dute eta zeregin gutxi izango dugu besteok. Beren borondatearen arabera izango da hori".

Azkenik, herriak bere iritzia eman duela "eta Usurbil abertzalea da, beti esan dugu hori. Eta gure boto-emaileei esker eman nahi dizkiegu".

PSE-EE: "Oposizio serioa eta eraikitzailea izango da gurea"

Ricardo Crespo zinegotzi izango da lehen aldiz Usurbilen. Lehenik eta behin, "PSE-EEko boto-emaileei eskerrak eman nahi dizkiet. Zinegotzi bat lortu dugu, hori izan da normalean izan dugun ordezkari eta zentzu horretan pozik gaude. Usurbilen, oinarri sendo bat izaten jarraitzen dugu". Partehartzea %68 izan delako, hauteskunde hauetan usurbildarrek egindako ahalegina eskertzeko dela uste du PSE-EEko kideak. Bildu zoriondu bai baina, gehiengo osoaren aurrean, oposizioaren lana ezberdina izango dela dio Crespok. "Eragin ahalmena galduko dugu, etorkizuneko udal gobernuak egoki ikusten duen moduan lan egiteko ahalmena izango du. Hala ere, oposizio serioa eta eraikitzailea izango da". Eskatzen dietenean, sozialistek udal gobernuarekin kolaboratzen jarraituko dutela adierazi du Ricardo Crespok, baina "uste dugu ez dutela maiz egingo, gehiengo osoa dutelako".

Batzar Nagusietan ere, Bildu nagusi

22 eserleku eskuratu ditu Bilduk. Jarraian, EAJ-PNVk lortu ditu eserleku gehien, 14 (duela lau urte baino bi gutxiago). PSE-EE herrialdeko hirugarren indarra litzateke, 10 eserlekurekin eta sei galduta. Jarraian PP legoke 4 eserlekurekin 2 galduta eta azkenik Aralar batzarkide batekin.



Gidabaimena euskaraz

Ausartu zaitez gidabaimena euskaraz ateratzera, uste baino errazagoa da

Askok uste dute gidabaimena euskaraz ateratzea zailagoa dela, baina hori ez da egia. Euskaraz zein gaztelaniaz dira hitz teknikoak zailak ulertzeko; gaiak berak baitu zailtasuna, ez da hizkuntza kontua. Buruntzaldeko Udaletako ordezkariak bildu dituzten emaitzek garbi utzi dute ez dela beldurrik izan behar azterketa euskaraz egiteko garaian. 2010ean gidabaimena ateratzeko eskolak euskaraz jaso eta azterketa euskaraz egin dutenen artean, %70etik gora gainditu dute, beraz, gaztelarazko eta euskarazko azterketen datuak parekoak dira.

“Semaforo berdea!! Gidabaimena euskaraz” ekimenean parte hartzen duten pertsonen gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera izango dute eta gainera, Buruntzaldeko Udalei esker, azterketa euskaraz egin eta gainditzten dutenen artean, zozketa egin (auto-eskola bakoitzeko sari bat) eta hamarrei matrikula baten diru-kopurua itzuliko zaie.

Buruntzaldeko edozein herritan atera daiteke gidabaimena euskaraz, guztira hamar auto eskolek parte hartzen dute kanpainan, eta bakoitzean gidabaimena euskaraz atera duen pertsona bati Udalek itzuli egingo die parte teorikoari dagokiona (matrikula bat, gehienez ere 400 euro izango dira).

Lasarte-Orian, hiru dira ekimenean parte hartzen duten auto-eskolak, Izarra, Lasarte eta Mugika, beraz hiru izango dira zozketan sarituak. Hauek azterketa-

ren alde praktikoari dagokiona soilik ordainduko dute.

Auto eskolak iaztik prest daude zerbitzua euskaraz emateko. Buruntzaldeko Udalak, iaz bultzatu zuten lehen aldiz egitasmoa, eta parte hartu zuten auto-eskolei beharrezko zituzten bitartekoak lortzen lagundu zieten. Horrela, auto-eskolek badituzte ordenagailuetan erabiltzeko multimedia aplikazioak, liburuak eta beste euskarri guztiak, euskaraz. Beraz, informazioa euskaraz izanagatik ez da eragozpenik azterketa gainditzeko.

Gaztelaraz bezain erraz

Egitasmoaren bultzatzaileek nabarmendu dute, euskaraz gaztelaraz bezain erraz atera daitekeela gidabaimena, kontutan izanik, ikastolan D ereduan ikasi arren askok gidabaimena euskaraz ateratzeari uko egin diola.

Antolatzaileen ustez ez dago erabaki hori hartzeko arrazoirik, euskaraz zein gaztelaniaz, esate baterako, kotxeko hitz teknikoak zailak baitira ulertzeko. Azterketa teorikoaren zailtasuna berdina da euskaraz zein gaztelaniaz, 30 galdera dira eta hiru oker onartzen dira soilik, hau da, ez dago hiru galdera baino gehiagotan akatsa egiterik.

Dena den, estatistikei dagokionez, oso emaitza onak izan direla adierazi dute Buruntzaldeko Udaletako ordezkariak: 2010ean gidabaimena ateratzeko ikasketak euskaraz jaso eta azterketa ere euskaraz egin zutenen %72k gainditu zuen.

Laurden batek soilik errepikatu behar izan zuen eta aipagarri da, gaztelarazko



USURBILLEN SOLOZABAL AUTO-ESKOLAN EGIN DAITEKE EUSKARAZ.

eta euskarazko azterketen datuak parekoak direla, eskualdeko Udalek azpimarratu dutenez.

Gero eta zabalduago

Euskara gidabaimena ateratzeko prozesura eramateko egitasmo honen arrakasta jakina da, eta Jaurlaritzak erkidegoan zabaltzeko erabakia hartu du.

Debagoiena bailaran jaiotako proiektua jada beste eskualde batzuetara zabalduta da eta gehiago zabaltzeko asmoa dute.

Jaurlaritzak ahalegin berezia egingo du maiatza eta ekainean egitasmoa komunikabideen bidez zabaltzeko.

Interesatuek herriko auto-eskoletara jo beharko dute zuzenean eta han jasoko dute eman beharreko pausuen berri. Lasarte-Orian, Geltoki kaleko Izarra, Kale Nagusiko Lasarte eta Zumaburuko Mugika auto-eskoletan atera daiteke erraz gidabaimena euskaraz.

Saiatu zaitez eta egin ezazu proba behean dagoen euskarazko testa eginez, ikusiko duzu uste baino errazagoa dela! Gainera erantzunak ikus ditzakezu www.buruntzaldea.org helbidean. Animatu zaitez!

Zure gaitasuna neurtu nahi al duzu?

Orokorrean, distrakzioengatik istripu gehiago non gertatzen dira?

- Errepide bihurgunetsuetan.
- Herri barruko bideetan.
- Autobide eta autobietan.

Zubi mugikor batera heltzen bazara, eta langa mugikorrek mugimenduan badaude, zer egingo duzu?

- Beste irteera bat bilatuko du.
- Azkar pasatuko naiz langak guztiz jaitsi baino lehen.
- Errei egokian geratuko naiz.

Gidari berri batek gehieneko alkoholemi tasa zenbatekoa izango du?

- 0,25 gramo litro odoleko.
- 0,5 gramo litro odoleko.
- 0,3 gramo litro odoleko.

Autobia uzteko...

- Irteeraraino zure erreitik jarraituko duzu.
- Irteeraraino hurbilen dagoen erreira joango zara eta ahalik eta arinen joango zara.
- Abiadura 60 km/h gutxituko duzu.

2 urte baino gutxiagoko ume batek, zenbat toki betetzen ditu kotxe batean?

- Toki baten %50.
- 2 urte baino gutxiago baditu, bat ere ez.
- Bat.

B gidabaimena baduzu, A gidabaime-nak gidatzea baimentzen dituen ibilgailuak gidatu ditzakezu?

- Motor-bizikletak bai, motorrak ez.
- 125 cc baino gehiagoko motorrak.
- Motorrak bai, motor-bizikletak ez.

Orain

SEMAFORO BERDEA!!!

**AZTERKETA TEORIKO BATEAN ZOKKETA
AUTO-ESKOLA BAKDITZEKO**
(Azterketa teoriko bat, behinaz 40€ euro)

gidabaimena FUSKARRAZ

**AZKEN TEKNOLOGIAK
MURCIDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN**



HAUKE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!

BURUNTZALDEAN NON:

Audain		
SENSORTXEA	Rua Barrena Eren 8	943 53 44 00
MENTI	Aguiñe de Gorta 11	943 30 05 04
Astigarraga		
ITAMENDI	Pelotas 6	943 33 33 11
Hernani		
HERNAN	Larrazky 8	943 55 05 54
	Urtubi 7	943 55 54 16
ITAMENDI	Erreina 1	943 55 55 55
Lazkao-Giça		
IZARRA	Galduki 11	943 37 70 55
LARAYTE	Nazketa 5	943 37 05 55
MIJICA	Gorta 1	943 35 33 75
Urdeta		
SELLOARAI	Atxular 24 1E	937 51 54 16
Ucarbe		
SELLOARAI	Irada 2	943 37 05 55

**gidabaimena
FUSKARRAZ**

DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!

www.buruntzaldea.org



Aurten lehen aldiz jokatu da emakumezkoen Pala Txapelketa, maiatzaren 31tik aurrera

Urte batzuk beren kasa entrenatzen aritu izan dira asteartean. Erakustaldiak egin dituzte azken urteotako Santixabel jaietan. Aurten urrats berri bat eman dute, lehen aldiz lehiaketa antolatzeko bildu eta jokatzeko. Gizonezkoenarekin batera, emakumezkoen arteko pala txapelketa ospatuko da asteotan, hamasei partaide eta zortzi bikoterekin. Maiatzaren 31n hasi eta hilabetez.

NOAUA! Zuen kontutik ibilita, nolatan eman duzue txapelketa jokatzeko pausoa?

Nerea Zinkunegi. Lau bat urte darmatzagu astearte eta ostegunetan jokatzen. Berdintasun teknikaria etorri zitzaigun jai egitaraua ikusi zuela, gizonezkoen artean pala txapelketa baina emakumezkoena erakustaldia moduan egiten zela esanez. Bazekien emakume batzuk entrenatzen ibiltzen ginela eta konbentzitu gaitu.

Ana Errasti. Txapelketa antolatzeko zortzi bikote osatzea komeni zen, bi taldetan erraz antolatzeko eta azkenean osatu dugu.

ANA ERRASTI

“Ilusioa egiten dit aurten nesken txapelketa ospatzeak”

N. Kate lana izan da partaideak bil-tzea?

Nagore Leoz. Lau bikote bagenituen jada. Zubietako federatua neska gazteak baziren eta gero konbentzitututa bikote bat ere animatu da.

N. Erraza izan al da zuek denok txapelketa honetan parte hartzeko konbentzitea?

A. E. Neure kasuan oso erraz. Denbora asko neraman jokatu gabe, baina gustatzen zait. Ilusioa egiten dit gainera, nesken txapelketa ospatzeak.



ZORTZI BIKOTE OSATU DIRA.

N. Emakumeen pala txapelketa antolatzeko lehen aldia dela jakinik, aurreko egunok nola bizi dituzue?

N. Z. Azken saio hauetan ibiltzen gara tokatzen zaigunarekin. Bestalde, neurketa egunetan, agian jende gehiago harrutuko da, bi kamiseta urdin eta bi gorri jantzita ditugula ikusita. Bestela, gu hemen ikustera ohituak daude.

N. Kirol jarduera hauetarako ez da sarri sortzen, halako talde bat. Poztekoa da ezta zuen kasuan lortu dela jakitea?

N. Z. Berdintasun teknikariaren helburua ere hori zen, emakumeak gehiago agertzea. Neska txikiek ikusi dezatela gu ere ibiltzen garela. Beraientzat ere motibazio puntua izan daiteke.

A. E. Pala asko praktikatu izan dute neskek eta eskola dezente ari dira sortzen eurentzat. Txapelketa desberdinak egiten dira jada. Orain herrian bertan izatea aukera ona da.

N. L. Eskupilotan bezala gertatzen da. Adin batera arte jokatzeko aukera dute, baina hortik aurrera beste zerbait bilatu behar dute.

N. Txapelketa hau amaituta, gustatuko litzaizueke nolabait jarraipena ematea?

N. L. Entrenatzen bai behintzat.

N. Z. Aurten ikusiko dugu hau nola ateratzen den eta sentsazio pilotarekin

gelditzen baldin bagara, beste urteetan jarraitu liteke antolatzen.

N. Zalantzan dagoen neska edo emakumeari zer esango zenioke?

A. E. Hasiera bat izatea espero dut. Jarraipena izango duela uste dut. Zalantza badu, dudarik ez egiteko, izena eman dezala.

N. L. Erreferente bat ere izan daiteke txapelketa hau. Ikusten duzu eta badakizu zer pilotarekin jolasten den. Orain urte osoa dago entrenatzeko eta ikusten da aukera dagoela jolasteko.

Igande honetan hasiko dira lehen jardunaldiak

Gizonezkoak Maiatza 29, igandea

Leko-Harreguy – Arruti-Olaizola.

Alkorta-Arregi – Huizi-Murua.

Arruti-Galarra – Loidi-Errekondo.

Esnaola-Zubiaur – Usabiaga-Ibarreta.

Emakumezkoak Maiatza 31, asteartea

Errasti-Urbe-Leoz-Unanue.

Zinkunegi-Laguardia-Aldunzin-Atxega.

Ekainak 2, osteguna

Jauregi-Azpiroz – Errasti-Manzisor.

Bailo-Furundarena – Leoz-Lorenzo.

Ekainaren 5ean ospatuko da Ikastola Eguna

Egun handia ekainaren 5a izango da. Baina ospakizunak lehenagotik hasiko dira. Aste honetan bertan.

Maiatzak 26, osteguna, bazkideen ohiko batzarra

18:00 Ikastolako bazkideen ohiko batzarra, ikastolako erdiko aretoan.

Ekainak 1 asteazkena, kantaldia Sutegin

18:30 Ikastolako HH5 eta LH5 mailetako ikasleen kantaldia Sutegin, senideei zuzendua. Oharra: sarrera mugatua, lekuarengatik.

Ekainak 3 ostirala, bertsoak, pailazoak...

12:30-14:30 DBHkoen bertso jaialdia ikastolako erdiko aretoan.

16:30 Korri, Xalto eta Brinko pailazoak, frontoian.

18:00 Txokolate jana eta buruhan-diak frontoian.

Ekainak 4, larunbata

10:00 Haur eta gurasoek Haur Eskolako patioa margotuko dute.

22:00 "Baginaren bakarrizketak" antzezlanak Sutegin.

Ekainak 5 igandea, Ikastolaren Eguna

9:00 Esnadeia.

9:00-11:30 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

10:00-13:30 LH eta DBHko ikasleen eskularen eta teknologiaren erakusketa ikastolan eta Haur Eskolako haurren erakusketa Oiardo Kiroldagiko harrera tokian.

12:00 HHko haurren jaialdia kiroldegian: "Zuztarregiko frutak".

14:00 Herri bazkaria frontoian. Bazkal ondorengo girotea DBHko ikasleen eta gurasoen eskutik.

Bazkarirako txartelak

Ekainaren 5ean ospatuko den Ikastola Egunean, ohi bezala, herri



"ENTRESAKA" FUNTZIDA ESKAINIKO DUTE EKAINAREN 3AN PAILAZOAK.

bazkaria burutuko da. Bazkaritarako txartelak salgai egongo dira maiatzaren 31 arte, Udarregi ikastolako idazkaritzan. Txartelak hartzeko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 12:00-13:00 eta 16:00-17:00 artean. Prezioa: helduek 20 euro gehi bi euro Iparraldeko ikastolen alde. Ikasleek 10 eurotan.

Txapeldun izan dira Gipuzkoako Kopan

Pasa den astebukaeran eskubaloiko Udarregiko neska infantilen taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen.

Larunbatean final aurrekoan, Zarauzko Aiala A taldeari irabazi zioten. Eta igandean, Elgoibarko kiroldegian Zarauzko Aiala B taldeari 17-13 irabazi ondoren eskuratu zuten kopa.

Denboraldi borobila osatu dute eta partida guztiak irabaztea lortu dute. Jokalarien zein entrenatzaileen lana zoriontzeko modukoa da. Zorionak!



UDARREGIKO ESKUBALOI TALDEKOAK, KOPA IRABAZI BERRI.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bi saio Sutegin jokatu dira, biak datorren astean

Maiatzaren 8an hasi zen 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Aurtengo berrikuntza nabarmenena hori izan da: txapelketa maiatzean hasi dela, Saillkapen Fasearekin. Orotara, 76 bertsolari hartuko dute txapelketan parte, eta horietatik 60 hasiko dira maiatzeko fasean. Denera, 20 saio jokatu dira eta horietako bi Usurbilen jokatu dira, larunbat honetan. Goizean saio bat, arratsaldean beste bat. Tartean, bazkaria ere antolatu da. Bertsozaleak, beraz, zorionekoak izango dira maiatzaren 28an.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala Donostiako Illunben jokatu da, abenduaren 18an. Urruti, oso urruti dago oraindik. Lehenik eta behin, kanporaketak jokatu behar dira eta dagoeneko hasi dira.

Bi saio Sutegin

Usurbilen jokatu dira kanporaketa horietako bi. Eta bi saioak maiatzaren 28an izango dira, biak Sutegin. Goizeko 11:30ean lehena, arratsaldeko 17:30ean bigarrena.

Sarrerak non erosi

Bi saioen artean bazkaria antolatu da bertsozale, bertsolari, parte-hartzaile eta bertso-eskolen arteko giroa sendotzeko. Bi saioetarako sarrerak zein bazkarirako txartelak soilik Interneten salduko dira, www.gpuntua.com web orrialdean. Sarrerei dagokionez, guztiak saltzen ez diren kasuan soilik jarriko dira lehiatilan salgai. Bazkaritarako txartelak ere modu berean salduko dira.



11:30EKO SAIDAN, BEÑAT ALBERDI, UNAI GAZTELMENDI, ZIGOR IRIONDO, IÑIGO GOROSTARZU, JOSU DIARTZABAL "XENPELAR" ETA IBAN URDANGARIN ARITUKO DIRA KANTUAN. ARGAZKIAN, HURRENEZ HURREN.



ARRATSALDEKO SAIDAN, 17:30EAN, OIHANA IGUARAN, JOKIN URANGA, EGOITZ EIZAGIRRE, ASIER SASIETA, AMAIA ITURRIOTZ ETA AGIN REZOLA ARITUKO DIRA KANTUAN. ARGAZKIAN, HURRENEZ HURREN.



txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Alegia kanporatuta, Herri Arteko Pilota Txapelketako final laurdenetara igaro dira

Zorionekoak dira usurbildarrek, Herri Arteko Pilota Txapelketan hurrengo fasera igarotzea lortu baitute, iaz eurak kanporatu zituzten aurkariak, alegiarrak, atzean utzita gainera. Final laurdenetan Usurbilek Oiartzun izango du aurkari. Neurketak ostiral honetan, maiatzaren 27an jokatuko dira.

Partida kopuru aldetik berdinduta, baina Alegia atzean utzita tanteoari esker Usurbilek aurrera egingo du Herri Arteko Pilota Txapelketan. Igande arratsaldean Alegian jokaturiko itzulerako hiru neurketetatik bi irabazi zituzten etxekoek eta bakarra usurbildarrek; Iñigo Ibargoi eta Josu Furundarena kadetek, hain zuzen, 22-4 emaitzarekin. Jubeniletan, Imanol Rebollok eta Imanol Zinkunegik 21-22 galdu zuten alegiarraren aurka. Nagusien mailan ere alegiarrak irabazle, Enrike Huizi eta Xabier Santxo lehiakide izanik, 14-22 nagusitu baitziren.



SEI PILOTARI HAUEK ARITU ZIREN ALEGIAREN AURKA.

tanteo kopurua gehitu behar; azkenean 22 tantoko aldea atera dio Usurbilek Alegiari.

Oiartzun izango da usurbildarren

hurrengo aurkaria final laurdenetan. Neurketak, ostiral honetan, maiatzaren 27an jokatuko dira, arratsaldeko 19:30etan Oiartzunen.

FINAL LAURDENETAN DIRA

“Hurrengo aurkaria
Oiartzun izango da. Ostiral
honetan joaneko partidak
Oiartzunen, 19:30ean”

Honenbestez, irabazitako partida kopuruari dagokionean, Alegia nagusitu zen hirutik bi neurketa irabazita. Aldiz, Usurbilen lehendik jokaturiko saioak aintzakotzat hartuta, talde bakoitzak hiruna partida irabazi ditu joaneko eta itzulerako neurketetan. Emaizta horri,

Pilota Txapelketa, asteburu honetako partidak

MAIATZAK 28 LARUNBATA
USURBILEN, 10:30EAN
JUBENILAK

Sarasti-Imaz / Olazabal-Leunda
(Oiartzun) (Amezketeta)

NAGUSIAK

Jauregi-Mendinueta / Kina-Biain
(Añorga) (Bidegoien)

Aranburu-Elola / Oronoz-Gorriti
(Lasarte) (Lesaka)

MAIATZAK 29 IGANDEA
USURBILEN, 10:30EAN
JUBENILAK

Olano-Tolosa / Setien-Otaño
(Leitza) (Andoain)

Cristobal-Mujika / Labaka-Arratibel
(Añorga) (Bidegoien)

NAGUSIAK

Ojuel-San Sebastian / Errasti-Altuna
(Hernani) (Usurbil)

**BENTA
TABERNA**
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

AITOR ALKORTA
Arotz lanak, era guztietakoak
Sukaldeak
Furgonetak norberaren gustora egokituak
Furgonetan homologazioa
629 789 288
alkortaitor@yahoo.es

Agenda!

Maiatzak 26 osteguna
- Jon Sarasuaren hitzaldia,
19:00etan Kaxkapen.

Maiatzak 28 larunbata
- Gipuzkoako Bertsolari Txapel-
ketako kanporaketa saioak
11:30ean eta 17:30ean.

- Kantu Jira 19:30ean frontoitik.
Maiatzak 29 igandea
- Bardeetara irteera. 7:30ean
kiroldegitik.

Goardiako farmaziak

Maiatzak 26, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 27, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 28 larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 29, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 30, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 31, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 1, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 2, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 3, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 4, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 5, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

Igande honetan, Bardeak ezagutzeko aukera aparta

Nafarroako Bardeak ezagu-
tzeko aukera paregabea
izango da igande honetan.
Andatza Mendizale Elkarteak bertako natur parkera joateko bidaia antolatu du baina, adi, izen ematea osteguneguz egin behar da Andatzako bulegoan.

7:30ean abiatuko dira autobusez Oiardo udal kiroldegiko aparkalekutik. 10:00etan, Bardeetako Piskerra mendira joko dute eta 14:30ean bazkaria, Bardeetako jatetxe batean.

16:30etik aurrera, Valtierako bizi-
leku izandako kobak bisitatuko dituzte
eta 19:00ak aldera itzuliko dira.



ANDATZA EGUNEAN ATERATAKO
ARGAZKIA.

Izen-ematea, 30 euro. Aurretik 10 euro jarri beharko dira. Andatzako bulegoan, maiatzaren 26an osteguna arratsaldeko 19:00etatik-20:00etara.
Informazio gehiago: andatza.com

Jon Sarasuaren hitzaldia Zubietan

Zubieta Lantzenek Jon Sarasuaren hitzaldia antolatu du. Ostegun honetan izango da, Kaxkapen, arratsaldeko 19:00etan.

“Herrigintzari buruzko gogoeta batzuk” izenburua gaitzat hartuta jardungo du Zubietako Kaxkape lokalean. Antolatzailerek aditzera eman digutenez, lurrarekin eta etorkizunarekin zerikusia duten mugimenduak aztertzen eman ditu azken urteak: “jasotako esperientzia ongi etorriko zaigu gainean jarri nahi dizkiguten proiektuen



MAIATZAREN 26AN OSTEGUNA,
19:00ETAN IZANGO DA HITZALDIA.

aurrean herritarrok eta, batez ere gazte jendeak hartu nahiko lituzkeen bideak aukeratzeko”.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ETXEBIZITZA

- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisu salgai. Dena beriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukaldea handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 78 metro karratuko pisu bat alokatzen dugu Atxegalden. 3 logela, egongela, bi komun, sukaldea, balkoia, berogailua eta igogailua. 637309209.
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gautan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona. Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena beriturita eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landexa bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Muna Lurra kalea 16. 3.C salgai. Eguzkitsua eta berri-tua. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaila. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Haur bat zaintzeko eta etxekolanak egiteko neska eskaldun baten bila gabilta. 646130387.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afanitarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udaregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiabok, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrek emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume eskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordu-tegi malgua (egunez zein gauze) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziarik eskaintzen da gautan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeke lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona

- helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lane-tarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendiari edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Baxxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserri-rako. 666539284
- Masajeak ematen ditut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 telefono zenbakira deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrian kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkar-te gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatueta bazeude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Hemengo intxaurrek salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113

**Zorionak Ekhiñe!**

Maiatzaren 18an urtebetetze eguna izan zenuen, zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Xubanen partez!

**Zorionak Maitane!**

Maiatzaren 24an 6 urte bete dituzu, muxu handi bat aita, ama eta Josebaren partez!

**Zorionak Julen!**

Maiatzak 26an 10 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko guztien partez!




**Zorionak Aimar!!**

Zure lehen urtebetetzea ederki ospatu genuen maiatzaren 23an. Muxu potolo bat gurasoen partetik txiki!!

**Zorionak Nahikari!**

Ekainaren 1ean 7 urte beteko ditu gure printzesak. Ondo pasa dezazula eguna eta muxu handi bat etxekoen partez.



Sarearen sáimanta






bastero
KULTURAREN

Javier Krahe

EKAINAK 3, Ostirala, 21:30h Auditorioan


 Gipuzkoako Jaiak: Urdaitz Info: 943.303.540 www.andoain.org



NOAUA.COM

**Herri osoa enteratuko da...
Zure publizitatea hemen**



Kontsulta itzazu publizitate-tarteen prezioak

943 360 321 publizitatea@noaua.com www.noaua.com

EDERTU ZAITEZ!



L'Oréal PROFESSIONNEL

Ioli Lizarralde
Ileapaindegia Estetika Zentroa

BERRIA!
KERATINAKO TRATAMENDUA
Ile-kizkurra leutzen du,
kizkurdura kentzen du,
ilearen hidratazioa, distira asko
30 urte azpikoek %70 deskontua

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



Inar ESTETIKA

munalurra 2, Usurbil
943 571 680

3x2

FOTODEPILAZIOAN
eta hiru horeziak estailka arloan



Maite eta Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626 603 600



INTZA
ILEAPAINDEGIA *Hair Beauty* WELLA
ESTETIKA ZENTROA

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu
Egun osoa irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 3641



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak
Zukako eta Etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. 943 370 462



GOLDWELL ELUMEN

mistoa

Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, 943 381 951